



**EUSKO LEgebILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

NOTA DE PRENSA

21-X-2004

Gracias a los servicios de que dispone la web www.parlamento.euskadi.net

LA TRAMITACIÓN DE LAS LEYES DE IGUALDAD, DE AGUAS Y DE SUELO SE PODRÁ SEGUIR PASO A PASO A TRAVÉS DE INTERNET

Los ciudadanos podrán seguir a través del correo electrónico la tramitación de las leyes [de suelo y urbanismo](#), la ley [para la igualdad entre hombres y mujeres](#), y la ley [de aguas](#) gracias a las herramientas informáticas con las que cuenta el Parlamento Vasco. Estos proyectos de ley, de gran repercusión social, serán tan accesibles para cualquier ciudadano interesado en ellos, como para los propios parlamentarios, ya que el texto original que ha presentado el [Gobierno](#) en el Parlamento, así como la totalidad de los materiales que se vayan generando a lo largo de la tramitación, serán fácilmente accesibles desde la web del [Parlamento Vasco](#). El servicio que se ofrece permite igualmente a los interesados remitir sus sugerencias, opiniones o datos a los grupos parlamentarios.

La Mesa del Parlamento ha admitido a trámite esta semana los proyectos de ley remitidos desde el Gobierno relativos conocidos como "de suelo y urbanismo", "para la igualdad entre mujeres y hombres" y "de aguas". Estas iniciativas han comenzado de esta manera su trámite parlamentario, que tal y como dispone el [Reglamento del Parlamento Vasco](#), contará con diversas fases hasta culminar en un debate y posterior votación en sesión plenaria.

PRENTSA OHARRA

2004-X-21

www.parlamento.euskadi.net web orriak dituen zerbitzuei esker

PAUSOZ PAUSO JARRAITU AHAL IZANGO DA INTERNET BIDEZ BERDINTASUNERAKO, URAREN ETA LURZORUAREN LEGEEN TTRAMITAZIOA

Herritarrek posta elektronikoen bidez jarraitu ahal izango dute [lurzoruari eta hirigintzari](#) buruzko legearen, [emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako](#) legearen eta [uraren](#) legearen tramitazioa Eusko Legebiltzarrak dituen tresna informatikoei esker. Lege-proiektu hauek (gizartean hain eragin handia izango dutenak) berdin-berdin eskuratu ahal izango ditu hala edozein herritar interesdunek nola legebiltzarkideek eurek ere, zeren [Jaurlaritzak](#) Legebiltzarrean aurkeztu duen jatorrizko testua, baita tramitazioaren joanean sor litezkeen material guztiak ere, erraz-erraz eskuratu ahal izango dira [Eusko Legebiltzarraren](#) web orritik. Eskaintzen dugun zerbitzuaren bidez, era berean, interesa dutenek beren iritzia, iradokizunak edo datuak bidali ahal izango dizkiete legebiltzar-taldee.

Legebiltzarraren Mahaiak tramitatzeko onartu ditu aste honetan hiru lege-proiektu Jaurlaritzak bidalitakoak: "lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa", "emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerakoa" eta "urarena". Ekimen hauek, hala, Legebiltzarrean egin beharreko tramitazioa hasia dute, eta tramitazio horrek, [Eusko Legebiltzarraren Araudiak](#) dioenez, zenbait fase izango ditu harik eta osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko diren arte.





Cualquier persona interesada en alguno de estos proyectos de ley podrá recibir en su cuenta de correo electrónico toda la información que semanalmente se genere en torno a estas ellos, gracias al sistema [Zabalik](#). Desde hace un año, y ante la enorme demanda e interés que suscitó la tramitación de la [Propuesta de Reforma del Estatuto](#), este sistema permite más allá de la [suscripción temática](#). Así se puede también seleccionar exclusivamente las iniciativa de interés y seguir su tramitación mediante el correo electrónico. Esta modalidad de seguimiento de iniciativas parlamentarias es actualmente accesible para todas las iniciativas en trámite, independientemente de su rango y del tipo de trámite que les afecte, y permite acceder, al igual que ocurre en la suscripción temática de Zabalik, a la totalidad de los documentos, vídeos y actas que conforman el expediente de esa iniciativa.

ZABALIK

El servicio de información y participación en las actividades del Parlamento, "Zabalik", permite elegir la información que se quiere recibir desde el Parlamento Vasco, bien seleccionando una materia, bien seleccionando una iniciativa concreta. Una vez realizada la suscripción, que es gratuita y que únicamente requiere una dirección de correo electrónico, el usuario recibe semanalmente un mensaje que le informa de los trámites que experimentan las iniciativas que ha seleccionado, así como los trámites que están previstos para la próxima semana. El mensaje especifica el tipo de trámite que ha afectado a cada iniciativa y permite acceder a toda la documentación disponible sobre la misma, incluidos también vídeos sobre los debates. Del mismo modo, al adelantar las previsiones de la próxima semana permite programar posible seguimientos en directo a través del servicio de retransmisiones por Internet. Además los mensajes dan acceso a otros servicios digitales de información que ofrece la cámara y a un sistema de participación que conecta a los ciudadanos directamente con los grupos parlamentarios.

Lege-proiektu hauetako edozeinetan interesaturiko edonork bere posta elektronikoko kontuan jaso ahal izango du ekimen hauetaz astero sor daitekeen informazio guztia, [Zabalik](#) sistemari esker. Duela urtebete, eta [Estatutua Eraberritzeko Proposamenaren](#) tramitazioak piztutako eskaera eta interes handi-handia dela eta, sistema honek [harpidetza tematikotik](#) harantzago joaten ere uzten du. Hartara, hala nahi izatera, bakar-bakarrik bakoitzak nahi duen ekimena aukeratu daiteke eta haren tramitazioa jarraitu posta elektronikoz. Parlamentuko ekimenak jarraitzeko modu hau tramitatzen ari diren ekimen guztiekin egin daiteke gaur egun (edozein mailatakoak izan edo eta edozein tramite-mota jarraitu behar izan). Halaber, modalitate honen bidez, Zabalik-eko harpidetza tematikoan bezalaxe, ekimen horren espedientea osatzen duten dokumentu, bideo eta akta guztiak eskuratu ahal dira.

ZABALIK

"Zabalik",-en bidez (Legebiltzarraren jardueren berri emateko eta jarduera horietan parte hartzeko zerbitzua) Eusko Legebiltzarretik zer informazio jaso nahi den aukeratu daiteke, bai gai bat aukeratuz, bai ekimen jakin bat aukeratuz. Harpidetza egin eta gero (harpidetza hori doakoa da eta posta elektronikoko helbide bat baino ez da behar), erabiltzaileak astero-astero jasotzen du mezu bat jakitera ematen diona berak aukeratutako ekimenak zer tramite jarraitzen ari diren, bai eta zer tramite aurreikusita dauden hurrengo asterako ere. Mezuak zehaztu egiten du zer tramite-mota egokitu zaion ekimen bakoitzari eta ahalbidetu egiten du ekimen horri buruz eskueran dagoen dokumentazio guztia eskuratzeko, debateei buruzko bideoak ere barru. Era berean, hurrengo asteko aurreikuspenak aurretik ematearekin, programatu egin daiteke zer jarduera jarraitu zuzenean Internet bidezko emanaldien zerbitzuarekin. Gainera, mezuek sarbide ematen dute Parlamentuak eskaintzen dituen beste informazio-zerbitzu digital batzuetara eta herritarrak zuzenean legebiltzar-taldeekin harremanetan jartzen dituen parte-hartze sistema batera.

